

## I. IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK

### I.1. JOKIN ETA NEREA: BIKOTEKA LAN EGINGO DUGU

#### JOKIN ETA NEREA: BIKOTEKA LAN EGINGO DUGU



Lehen Hezkuntzako 4. mailako Jokin eta Nerearen irakasleak bikoteka lan bat egiteko eskatu die eta lan egiteko elkarrekin jarri ditu. Nahiz eta inoiz eztabaidatu ez duten, ikasteko oso modu desberdina dute.

Testu batean akatsak aurkitzea eta problema batzuk egitea izango da lana. Ondoren, gela osoaren aurrean esan beharko dute zer ikusi duten eta zer ikasi duten elkarrekin.

Hau da testua:

#### ***Segurtasun-aholkuak, bizikleta hartu baino lehen***

*“Bizikleta hartzen dugun bakoitzean azterketa sinple bat egitea komeni da:*

- *Torloju guztiak solte daudela ziurtatzea.*
- *Aurreko eta atzeko frenoak ziurtatzea.*
- *Martxak aldatu eta ondo funtzionatzen duten ziurtatzea.*
- *Katea kanpoan dagoela ziurtatzea.”*

01

**Testuak akatsak izan ditzake. Lagundu Jokini eta Nereari akats horiek aurkitzen. Zure ustez, non daude?**

- A. Lehen eta bigarren puntuan.
- B. Bigarren eta hirugarren puntuan.
- C. Lehen eta laugarren puntuan.
- D. Bigarren eta laugarren puntuan.

Irakasleak fitxa bat eman die bikoteka lan egiteko jarraitu beharreko pausoekin. Irakurri fitxa, baina ez idatzi ezer.

|                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>DATA:</b>                                                                                                                                                                                                            |                                                                                       |
| <b>ARIKETAREN IZENA:</b>                                                                                                                                                                                                |                                                                                       |
| <b>ARIKETAREN PAUSOAK</b>                                                                                                                                                                                               |                                                                                       |
| <b>1. BAKOITZAK ESATEN DUGU ZER DAKIGUN GAIARI BURUZ:</b>                                                                                                                                                               |    |
| <b>2. BAKOITZAK IRAKURTZEN DUGU TESTUA EDO PROBLEMA, ZER EGIN BEHAR DUGUN ULERTU ARTE:</b>                                                                                                                              |    |
| <b>3. AKATS BAT IKUSTEN DUENAK GELDITZEKO AGINTZEN DU:</b>                                                                                                                                                              |   |
| <b>4. ZALANTZAK ARGITZEN DITUGU, ELKAR LAGUNTZEN DUGU PISTAK EMANEZ EDO PROBLEMA BERRIKUSTEN DUGU:</b>                                                                                                                  |  |
| <b>5. ELKARRI ZORIONDU EGINGO DIOGU EGIN DUEN LANAGATIK:</b><br><b>Goraipamenen hiztegia:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zorionak.</li> <li>✓ Oso ondo egin duzu.</li> <li>✓ Jarraitu horrela.</li> </ul> |  |

02

**Zure ustez, irakasleak zergatik eman du fitxa hau?**

- A. Batek agindu eta besteak hark esandakoa egiteko.
- B. Elkarrekin irakurtzen ikasteko.
- C. Bikoteka lan egiten ikasteko.
- D. Irakurtzen dutena idazteko.

03

**Zertarako balio dute fitxako marrazkiek?**

- A. Fitxa dekoratzeko.
- B. Lantzen dituzten testuak hobeto ulertzen laguntzeko.
- C. Jokini eta Nereari pausoez gogoratzen laguntzeko.
- D. Ondoren, marrazkiekin muntaketa egiteko.

Era berean, problema bat eman die ebazteko:

*"Musika denda batean 657 CD jaso dituzte. Astelehenean apalategian 239 ipini zituzten, asteartean 221, asteazkenean 38, ostegunean 63, ostiralean 29 eta larunbatean azkenak jarri zituzten. Zenbat jarri zituzten larunbatean?"*

**Jokinek eta Nereak soluzioa aurkitu dute: 67 CD**

04

Jarraian, problema ebazteko modu bat baino gehiago ageri dira. Adierazi “X” batez **ZUZENAK** edo **OKERRAK** diren.

| PROBLEMA EBAZTEKO MODUAK                                                                                 | ZUZENAK | OKERRAK |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|---------|
| a) CD guztiak batu.                                                                                      |         |         |
| b) Asteleheneko, astearteko, asteazkeneko, osteguneko eta ostiraleko CDak batu, eta 657ri emaitza kendu. |         |         |
| c) 657ri asteleheneko CDak kendu, emaitza horri asteartekoak, eta horrela, ostiralera arte.              |         |         |

05

Jokinek eta Nereak zer ikasi duten esango dute. Ikasi duten gauzetatik, adierazi zein erabili ahal dituzten gelako beste lan batzuetarako.

.....  
.....  
.....